

# Proyecto de Academia Bascongada. 1886ko Euskal Jaien emaitza eta beste

(The project of a Basque Academy and other  
results of the Basque Festivities in 1886)

Lizundia Askondo, Jose Luis\*

Euskaltzaindia  
Plaza Barria, 15.  
48005 Bilbao

\* Euskaltzain urgazlea.  
Eusko Ikaskuntza

---

*Lon honetan Durangoko 1886ko Euskal Jaien emaitza zenbait aztertzen dira, bereziki bat, "Proyecto de Academia Bascongada" zeritzana, zeinetan Aristides de Artiñano jaunak irabazi zuen saio saria aztertzen baita zehatz-mehatz. Beronek historia eta hizkuntzaren akademia bat arautu baitzuen kapitulu bakoitzak ondo adierazten duenetik. Hortik landa Euskal Jaien beste emaitza batzuk aipatzen dira, zeharkakoak, adibidez, "Euzko Abendaren Ereserkija"ren jatorria eta literaturaz kanpoko beste sari bi, ez baitira literatura alorrekoak, bata, Camilo de Villabaso bilbotar ospetsuak idatzitakoa, eta beste a Aizpurua izeneko jaun batena. Durangokoan honelako lanak aurkeztu edo saritu baziren horrek esatea nahi du besteetan ere saio interesgarri asko agertuko zirela eta norbaitek arakatu beharko lituzkeela.*

*Giltz-Hitzak: Euskal Akademia. Diputazioen babesa. Agerkaria/Boletín/Revista. Akademikoak. Batzordeak. Euskal Katedra. Fiestas Euskaras. Ezpatadantza. Euzko Abendaren Ereserkija.*

*En la comunicación se analiza sobre todo el premio de ensayo de las Fiestas Euskaras del año 1886, en el que resultó premiado el trabajo de Aristides de Artiñano "Proyecto de Academia Bascongada", cuyo título más preciso es "Proyecto, base y reglamento de una academia de lengua e historia euskaras en completa armonía con los principios católicos". En la comunicación se analizan punto por punto el texto que se conserva en el Archivo de la villa de Durango. En una segunda parte la comunicación trata de otros frutos de estas Fiestas Euskaras como la promoción de la ezpatadantza, e indirectamente también el "Euzko Abendaren Ereserkija". Finalmente se mencionan otros dos trabajos premiados para demostrar que no solamente eran Juegos Florales Literarios: uno es el de Camilo de Villabaso y otro de un tal Aizpurua. Como se ve, estos certámenes no solamente produjeron el renacimiento de la literatura vasca, sino también de otros campos como la historia, el folklore, la economía, etc.*

*Palabras Clave: Academia Vasca. Apoyo de las Diputaciones. Agerkaria/Boletín/Revista. Académicos. Comisiones. Cátedra de euskara. Fiestas Euskaras. Ezpatadantza. Himno vasco.*

*Dans ce rapport, on analyse surtout le prix de répetition des Fêtes Euskaras de 1886, qui fut attribué au travail d'Aristides de Artiñano "Proyecto de academia Bascongada" (Projet d'Académie Basque), qui s'intitule plus précisément "Proyecto, base y reglamento de una academia de lengua e historia euskaras en completa armonía con los principios católicos" (Projet, base et règlement d'une académie de langue et histoire basques en complète harmonie avec les principes catholiques). Le texte conservé dans les Archives de la ville de Durango est analysé point par point dans le rapport. Dans une seconde partie, le rapport traite d'autres résultats de ces Fêtes Euskaras telle que la promotion de la "ezpatadantza" et indirectement également dans "Euzko Abendaren Ereserkija". Finalement, d'autres travaux primés sont mentionnés pour démontrer qu'il ne s'agissait pas seulement de Jeux Floraux Littéraires : l'un d'eux est celui de Camilo de Villabaso et un autre d'un certain Aizpurua. Comme on peut le constater, ces concours occasionèrent non seulement la renaissance de la littérature basque, mais également de l'histoire, du folklore, de l'économie, etc.*

*Mots Clés: Académie basque. Soutien des Députations. Agerkarina/Bulletin/Revue. Académiques. Commissions. Chaire de basque. Fêtes Basques. Ezpatadantza. Hymne basque.*

Txosten honetan Antoine d'Abbadie jaunak urtez-urte antolatu, babestu, edoeta lagundu zituen Euskal Jaien emaitza zenbait azpimarratu nahi nituzke. Ez horrenbeste literatura sariak, baizik eta inguruan egin ziren beste zenbait ekintza interesgarri. Gehienbat 1886ko Euskal Jaien emaitza bat azpimarratu nahi nuke, hain zuzen, Durangoko hirian urte horretan egin ziren saioko lehiaketa Aristides de Artiñano jaunak irabazi zuena, "Proyecto de Academia Bascongada" deritza beronek. Saria aurretiaz pentsatuta zegoen Durangoko Euskal Jaien batzordeak uztailean egindako bilkuran oinarrietan hau jartzen baitzuen: "Proyecto base y reglamento de una academia euskára, en completa armonía con los principios católicos". Irabazle, Aristides de Artiñano bilbotarra suertatu zen, zenbait lan interesgarrien egile, besteak beste, "El Señorío de Bizcaya histórico y foral", "Las ordenanzas y el consulado de Bilbao", "El poder legislativo foral en las provincias bascongadas", "Por Dios y por Bizcaya Berriochoa, recuerdo de la beatificación", "Reglamento del cuerpo de telegrafos del M.N. y M.L. Señorío de Bizcaya" eta abar.

Lehentxoago Aizkibel azkoitiarrak eta Ullibarri okondoarrak aipamanen bat egina zuten Akademia baten beharrianaz, Artiñano de Durangoko Euskal Jaietan zehazki horretaz mintzatzen dena bada ere. Azpimarratuko ditugu, ezinbestean, zenbait aipamen hitzez-hitz: "A pocos pueblos prestaría mayor utilidad *una corporación esencialmente literaria, que al País Basco-Nabarro*. Con decir que, á pesar de su notoria ilustracion, del extraordinario progreso que ostenta en las ciencias y las artes, de su preclara historia y de poseer un idioma especialísimo, *no cuenta con una sola institución que cuide de poner en relieve las distinguidas cualidades que le adoman, ni de hacer resaltar la mision, verdaderamente grande, que ha llenado en el desarrollo histórico de nuestra pátria, queda justificada la necesidad de crear un Corporación*" ... "Fijándose en lo que ha sido el pueblo bascongado y en los escasos monumentos que de su brillante historia conocemos, *se patentiza la utilidad que una Academia, celosa del buen nombre de este país, puede producir*". Hasieran horrela hasten bada Artiñano, sarrerako zenbait lerroketan ere, agertzen du argiro gainera, horrelako korporazio baten beharrianaz, korporazio bat baita gure gaurko Euskaltzaindia ere. Horrela jarraitzen du beste puntu batetan. "Empero, lo que el individuo no alcanza, lo consigue el impulso de la comunidad que, aunando los conocimientos de todos, reuniendo dispersos datos, acumulando antecedentes y excitando el patriotismo, realiza en años lo que en el individuo aislado se requiere siglos para formar: *las Corporaciones disponen de medios más eficaces para impulsar la obra, lenta y laboriosa, de reconstruir la historia pátria* y contribuyen, con indudable acierto, á depurarla de cuantos errores y oscuridades esconden la verdad á los ojos del investigador" ... "Una Academia protegida por las autoridades y centros del País, podría publicar en detalle ó en extracto *la coleccion de actas de las Juntas generales; investigar la historia de las Merindades y Hermandades*" ... "Hacer, en fin, que el mundo conozca al pueblo Euskaro, tal como fué, con sus leyes peculiares, su primitivo idioma" ... "*Si de la historia pasamos al idioma, es casi tan lamentable la situacion en que nos hallamos*" ... "Y otras circunstancias que patenticen la importancia histórica de un idioma, que vive aislado en el mundo y que, *si embargo, es digno de los más profundos estudios y de las más serias investigaciones*".

Hizkuntzarentzat Akademi honen beharrianaz azpimarratzeko jarraitzen du luzaro, horregatik zenbait puntu bakarrik ekarriko ditut hona: "Pues si todo esto es verdad; si peligros tan graves amenazan á nuestro peculiar idioma, ¿no ha de procurarse darle impulso vigoroso, *hacerlo revivir, ponerlo de moda, y permítasenos la frase, para que, extendiéndose de nuevo por todo el País, recupere aquella popularidad, garantía de su existencia?*" ... "Por más laudables que sean los generosos esfuerzos de tan dignos escritores, hay que imprimir al bascuence un impulso más vigoroso y decisivo; *hay que infiltrarlo en la masa del pueblo euskaro; llevarlo á la cátedra y á las escuelas; colocarlo en el libro y en el periódico; hacerlo neces-*

rio, por todos los medios y á toda costa, mandando, si así fuere preciso, que cuantos aspiran á puestos y cargos en el País, posean ese idioma y lo hablen corrientemente" ... "Mas para llegar á ese desideratum; para conseguir tales resultados, conviene adoptar un camino seguro y que, aunque lento, sea eficaz. *Una Corporación, con el prestigio y autoridad suficientes*, es la sola que puede mover la opinion, crear atmósfera, y á la vez que depure á nuestro idioma de las voces y frases extrañas introducidas en él, estimule su conocimiento, lo estudie en sus orígenes y lo realice ante los sabios y el pueblo".

Sarreraren bigarren kapituluan korporazio horren, Akademia horren, bi zutabe edo egin-kizunak zehazten ditu, historia eta hizkuntza, beraz, badirudi Akademia baten Hizkuntzaren Akademia eta Historiaren Akademia beharrezko ikusten zituela, bereziki. Bidenabar, gogora dezagun 1918an Oñatiko Biltzar famatu hartan bi erakunde sortu zirela, hain zuzen, Biltzar hau antolatzen dutenak Abbadieren omenez, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia, bigarrena hizkuntzaren akademia bezala gelditu zen eta lehendabizikoa gainontzeko zenbait sail antolatu zituen gerrararte eta baita orain ere horrela ditu. 1. Historia, hain zuzen.

Hala ere oroitaraztea nahiko nuke nola Manuel Irujo politikoa famatuak, berak Londresen 1921ean egindako "Consejo Nacional de Euzkadi"ren buru zelarik egindako zenbait konstituzio egitasmoetan bat agertzen dela titulu hau daramana "Anteproyecto para una Constitución de la República Vasca que el Consejo Nacional de Euzkadi presenta a la consideración de las Colonias Vascas establecidas en Países libres". Beronen 37. artikuluan hau dio: "Las Academias Nacionales de la Lengua, Historia, Artes, Ciencias, Legislación y Jurisprudencia, funcionarán bajo la protección del Estado y en régimen de autonomía con arreglo a las leyes que fijarán los medios precisos para otorgar su estatuto, el cual será aprobado por las Cortes". Beraz, bigarren Akademia nazionalizat historiaren beharrezana azpimarratzen zuen egitasmo honek. Entzuna diogu, eta ez nik bakarrik, Koldo Mitxelenari, bagenuela hizkuntzaz gain, ardua berezi bat izan behar historia ikerketez, eta egia esan, historia ez dugu gure esku, eta historialariak denetik daude baina ez euskal nazio zentzua dutenak gehienak. Horregatik bada, oraindik eginkizun hau bere garrantzi osoan dirau.

Jarraitzen du Artiñanok bigarren sarrera honetan: "Demostrada la necesidad de crear ó establecer una Corporacion encargada de reconstruir *la historia del País* y de fomentar y desarrollar el estudio del idioma euskaro, réstanos presentar el cuadro de la organizacion que consideramos más adecuada á la forma especial del país Basco-Nabarro y á los elevados fines que debe llenar". Baina Artiñanok argi ikusten du Hegoaldeko lau Diputazioen babesa behar zuela Akademia-korporazio horrek, hara zer dion: "La proteccion de las Diputaciones es de rigor y de necesidad. Una Corporacion de índole tan especial y cuya influencia se desea sea beneficiosa, ha de vivir al amparo del poder regional, aquí tan querido y respetado. Así nacerá pujante y lozana y podra desarrollar su mision con toda amplitud, pues, contando con el apoyo de las autoridades, investigará archivos y documentos, que de otro modo le sería imposible examinar. Además, la Academia necesita recursos que sólo pueden concederla las Corporaciones populares, ya que en bien de la generalidad han de redundar sus trabajos". Eta bere planteamendu argian ikusten zuen Akademia batek agerkari bat ezinbestekoa zuela, noiz edo behin Euskaltzaindiaren argitalpenak ere eztabaidatuak edo behintzat ez hain aitortuak izan direlako dakart hona. Badakigu, bai guk, Euskaltzaindian eta bai Eusko Ikaskuntzak, beraien lanen fruituak agertzeko argitalpenekin dituen diru eta babes arazoak. Hara zer dion Artiñanok horretaz: "La publicacion del *Boletín* es de notoria conveniencia, si ha de apreciarse el resultado de las tareas de la Academia, dilucidarse puntos dudosos y acrecer el estímulo de cuantos tengan aficion á los estudios históricos y lingüísticos. Una Academia sin una Revista que dé á luz el fruto de sus deliberaciones, es como un cuerpo sin vida". Ez da ahazten bere sarreran euskal katedren beharrezanaz ere,

hori ere azpimarratzen du jarraian: “Una de las aspiraciones del país ha sido y es el establecimiento de cátedras en que se explique la historia é instituciones peculiares de nuestro pueblo y se vulgaricen los estudios del bascuence, esa lengua admirable, que nuestros padres nos legaron, y que de abandonarse irá desapareciendo paulatinamente, merced al roce constante con el idioma castellano y al uso preferente de este idioma en todos los actos de la vida oficial y privada. La Academia es la llamada á promover la creacion de esas enseñanzas, venciendo los obstáculos, formulando programas y excitando el patriotismo de Corporaciones y pueblos para decidirles á plantear una mejora de indudable utilidad en la esfera moral”. Azken dei bat egiten die Durangoko udalari, Bizkaiko Diputazioari eta beste Diputazioei gero: “No somos competentes para señalar el camino oportuno á conseguir su planteamiento. Sin embargo, nos atrevemos á aconsejar al Ayuntamiento de Durango, que, una vez aceptado uno de los proyectos, acuda á la Diputacion de Bizcaya para que lo prolige y pida á las Diputaciones hermanas su conformidad, que es seguro la obtendrá, sin dilacion. Puestas estas Corporaciones de acuerdo acerca de las bases, procederán á designar los Académicos de *número*, que han de formar la Corporacion y á señalar la cuota anual con que cada provincia ha de contribuir al sostenimiento del Instituto, cuota que no excederá de unas 25.000 pesetas anuales en total, distribuidas en proporcion al número de individuos de cada provincia” ... “Puede darse por cierto que ántes de pocos meses la Academia existirá, con aplauso de cuantos aman las glorias y las venerandas tradiciones de esta tierra, y las *Fiestas euskaras* de Durango serán el origen de una Corproacion, que andando los tiempos, sea el orgullo del noble solar Basco-Nabarro”.

Ondoren, Artiñanok Akademiaren egitasmoaren arauak ere egiten ditu, ikusten da lege formazio heziketa zuen gizona zela eta hemen egitismo osoa ekartzerik ez badugu ere, artikulurik interesgarrienak dakarzkiz: “Artículo 1º. La *Academia Bascongada de San Ignacio de Loyola*, tiene por principal objeto los estudios históricos referentes al País Basco-Nabarro y cultivar y difundir el idiomas euskaro.- Art. 2º. La academia cumplirá el objeto de su instituto: 1º Fomentando los estudios históricos del País, reuniendo los documentos necesarios para esclarecer los sucesos del pueblo Basco-Nabarro en todos su épocas; redactando historias particulares de cada una de sus Provincias; monografías de las localidades; biografías de sus hombres ilustres; descripcion de los monumentos del País; y cuanto conduzca á adquirir una exacto conocimiento del estado social y político de la sociedad Basco-Nabarra en la antigüedad y en los tiempos modernos. 2º Celando muy especialmente por la conservacion, pureza y *esplendor del idioma Bascongado*; investigando sus orígenes; debatiendo y depurando sus principios gramaticales; y procurando que la lengua euskara se conserve y propague en todas las clases, vulgarizando su estudio y conocimiento. Art. 6º. La Academia contará con el apoyo directo de las Diputaciones del País Basco-Nabarro, para revistirla así de la autoridad y prestigio necesarios á llenar el fin que se propone. En su virtud, será considerada como Coporación oficial del País para los fines de su instituto. Art. 7º. Las Diputaciones nombrarán, en la debida proporcion, los individuos que han de formar la Academia al constituirse, eligiéndolos entre los que más se hayan distinguido por su saber y conocimientos en cualquiera de los ramos objeto de la Academia. Art. 8º. Las Diputaciones auxiliarán á la Academia con una subvencion anual, proporcionada á sus gastos, cuya subvencion se otorga en compensacion de los servicios que la Academia preste á las Corporaciones provinciales, evacuando los informes y consultas que se la pidan, dentro del objeto de su creacion. Art. 9º. Componen la Corporacion: Académicos numerarios. Académicos supernumerarios. Académicos corresponsales. Art. 10. Los Académicos de *número* serán *cincuenta*, distribuidos en esta forma: 16 naturales del Reino de Nabarra. 12 naturales del Señorío de Bizcaya, 12 naturales de Guipúzcoa. 10 naturales de Alaba.”

Akademia horren antolakizunaz ere titulu oso batez aritu da, hara hor sei artikulutik, pare bat bederen: "Art. 22. Para el despacho de los asuntos que correspondan á la Academia en Corporacion, y para preparar los dictámenes que procedan, nombrará la Academia Comisiones permanentes: de Historia. De Idioma. De Gobierno interior. Del Boletín. Art. 24. Los oficios de la Academia son: Director. Censor. Tesorero. Bibliotecario. Secretario. Todos se elegirán en votacion secreta entre los Académicos de número".

Euskal katedrei buruz ere artikulua bi dedikatzen dizkio, hara hor bat bederen: "Art. 48. La Academia se esforzará por que se establezcan en todas las Provincias cátedras de la historia y de las instituciones especiales del País y del idioma Bascongado, reclamando para ello el apoyo eficaz de las Diputaciones, Ayuntamientos y Corporaciones".

Lehiaketei ere hiru artikulua, hara hor, lehendabizikoa "Art. 50. La Academia convocará anualmente uno ó dos certámenes literarios, á fin de estimular á cuantos puedan contribuir al esclarecimiento de la historia del País y de sus instituciones y al fomento del idioma Bascongado. Se procurará que estos certámenes coincidan con la celebración de las Juntas generales de la Academia".

11. tituluak Akademia agintariekin izan behar duten harremanez aritzen da, hara hor, laburturik zer dion bi artikulutan "Art. 53. Siendo las Diputaciones del País Basco-Nabarro protectoras oficiales de la Academia, y ayudandola con una subvencion fija, tendrá el derecho de pedirla cuantos informes y consultas crean conveniente, siempre que se relacionen con los objetos de su instituto. Art. 54. Los Ayuntamientos podrán pedir, asimismo, informes á la Academia; mas en este caso, deberán *significar de un modo decoroso su reconocimiento, bien ayudando á sus gastos, ya ofreciendo premios para los certámenes ó cooperando al mayor lustre de sus fiestas y Juntas generales*". Udalena azpimarragarriena deritzagu, zeren eta oraindik ez baitugu, ez Euskaltzaindian bertan, ez udaletan, horren kontzientziarik.

Ikusteko zer xehetasunekin lotzen dituen arauak, hara hor Artiñanok nola ematen dituen titulu bakoitzaren izenak: 1. Objeto de la Academia, 2. Carácter de la Academia, 3. De los Académicos, 4. Organización, 5. De las Juntas Generales, 6. De las Secciones, 7. De los oficios de la Academia, 8. De las Comisiones, 9. De las Cátedras, 10. De los Certámenes, 11. Relaciones de la Academia con las Autoridades, 12. Artículos transitorios". Beraz, Akademiaren egitasmo hau zehazki elaboratutako zerbait izan zen 1886ko Euskal Jaiei emaitza oparoa.

Sabino Aranak, *Euskalerra* aldizkarian goraiatzeko du Artiñanoren egitasmo hau, artikulua interesgarri baten. Idazlana luzea denetik, hara hor azpimarratzen ditugunak: "El euskara es, pues, elemento esencial de la nacion *euskalduna*; sin él, las instituciones de esta son imposibles" ... "Mas para llevar á feliz término el estudio de la lengua é historia euskarianas, precisa la uniformidad de ideales, la unidad y simplificacion de métodos y la unificación de teorías. Hoy cada tratadista sigue su sistema especial, y no puede atenerse á un norte fijo, porque no le hay. Este solo será posible cuando las personas que en nuestro suelo se consagran con más ó ménos interés á los estudios históricos y filológicos, reuniéndose en sociedad, constituyan una Academia que tienda al esclarecimiento de la verdad en aquellos dos órdenes de conocimientos y móviles patrióticos; una Academia que en historia elimine la fábula y admita solo los hechos, demarque exactamente el fin de la época imaginaria y el principio de la realidad histórica, é investigue en lo posible el número y clase de las circunstancias que á cada hecho acompañaron, y que en lingüística resuelva y elida las formas y vocablos alienígenas, perfeccione las indígenas, deslinde las formas degeneradas de las primitivas, determine el método fundamental y aún el didáctico y forme voces nuevas que correspondan á los nuevos significados que en la actualidd se presentan; una Academia, en

fin, que estudiando sériamente la historia é idioma de ese pueblo original, é infiltrando y propagando en él su perfecto conocimiento, atienda por esta doble manera al bienestar de su pátria directamente, é indirectamente en beneficio del saber humano" ... "La digna Comision de las Fiestas Euskaras de Durango, celebradas en Julio último, destinó un número del programa de su Certamen literario á "Proyecto, bases y reglamento de una Academia de la lengua euskara, en completa armonía con los principios católicos", número que fué cubierto con el "Proyecto de Academia Bascongada", escrito por el Ilmo. Sr. D. Arístides de Artiñano, autor de "El Señorío de Bizcaya, histórico y foral".

Geroago 1906an hain zuzen, Adolfo de Urquijok Bizkaiko Diputazioko presidentek aurkeztuko zuen egitasmoa ildo horretatik joango zela bistan da, orduan, lau Diputaziotako batek huts egin bazuen ere, Arabakoak, hain zuzen. Azkenik, Ramon de la Sota Aburto Bizkaiko Diputazioko buru zela, gauzatuko zen. Beraz, Artiñanoren gogoia Hegoaldeko lau Diputazioak babestearena bete zen, arauen onarpen eta guzti.

\* \* \*

Tituluan bertan aipatzen dut ez zela bakarrik Akademia izango Euskal Jaien emaitza. Zeharka bederen, beste batzuk aipatzea nahi nituzke, bi Sabino Aranaren eskutik. Sabinok bere lanetan behin baino gehiagotan aipatzen ditu Antoine d'Abbadie eta Euskal Jaiak Arana Goirik. 1886koen zeharkako emaitza bezala hartzen ditut bi hauek: 1. Sabino Aranaren artikulua hau *Euskalerrria* aldizkariaren 1886.eko uztailaren 20an, 217. zenbakian argitaratu zen. 1897.eko abuztuaren 8ko *Baserritarra* aldizkarian ezpatadantzari buruz, honako hau jartzen du "En Bizcaya, solo se conservan en el Duranguesado: pues, que nosotros sepamos, actualmente hay cuadrillas de ezpatadantzaris en Berriz, Yurreta, Abadiano y Garay". Argi dago beraz, Durangoko Euskal Jaietan egon zela 1886an, zeren eta lau herri hauek parte hartu baitzuten Euskal Jaietan, uztailaren 26an, astelehenez, izan zen txapelketan. Horrela jartzen du egitarauan "Concurso de ezpatadantzaris en cuadrillas que no bajen de ocho individuos, a la usanza de la Merindad de Durango, con un premio de 300 reales, de la Excm. Diputación". Jakina da abertzaleen berbizkundean, bereziki, jeltzaleak hasten dutenean, zer garrantzia izan zuzen autore honen hedapenak, batzokiz-batzoki zabaldu baitzen Bizkaiko ezpatadantza deitzen zutena. Ez zen izan izen zehatza, bizkaitarrismoak eragin bazuen ere, zeren eta Durangoko merinaldekoa bakarrik baitzen.

Beste zeharkako emaitza aipatzea nahi nuke eta hau da, "Euzko Abendaren Ereserkija" deitzen dena. Hain zuzen ere, bera hil da gero argitaratutako argitaldariak hau dio: "Uste edo gogai onekin, 1902. urtian, barriro espetxean nengoelarik, ereserkixa idatzi eban, gaiñean ikusi dozuen lez. Ezpatadantzaren soñuegaz abestutako egin eban, geroago, bera il da gero, Zabala'tar Kelda eresgilleak eresia atondu eban. 1905. urtian Euzko Alderdi Jeltzaleak bereztat artu eban eta ortik batzokietan eta Euzko-jaietan abertzaleak abestuten asi ziran". Esan behar da letra alde batetara utzita, une honetan Euskal Autonomia Erkidegoko himno ofiziala dela berau. Sabino Arana Goirik atera zuela argi dago, hain zuzen 1886. urtean, 21 urte zituela, lau herri horietakoei hasierako agintarien dantza deitzen dugunaren doinutik hartu baita zehazki. Tartekatu dezan dantza honetaz dokumenturik interesgarriena Benito Bizkarra Aranak "Los pueblos de la merindad de Durango tenían su guardia armada, compuesta de jóvenes de cada localidad" nola jartzen zituzte gero armarran arma horiek, armagizonak baitziren, gerotxoago agertzen duenetik, "gendarmes", beraz, eta horrela jarraitzen du: "Los fornidos soldados, previa venia y saludos a las autoridades y después de que el abanderado hubiese agitado la bandera por encima de la cabeza de los soldados, que rodilla en tierra rendían armas a los representantes del clero y pueblo..." segitzen du. Beraz, agintarien agur

hori, agintariena da beraz ereserkia, Sabino Aranak idatzia eta Cleto Zabalak musikatua. Hain hain zuzen ere, Durangoko Euskal Jaietan laugarren saria irabazi zuen Zabalak lehiaketa artistiko kulturaleran zilarrezko domina "La música es divina entre las artes, y universal entre los idiomas" deritzanarekin. Esan dezadan, bidenabar, lehen saria "Himno a Astarloa"rekin "Una pluma de oro y plata regalo de la Compañía del Ferrocarril Central de Bizcaya, a Jose Ignacio Zabala" jesuita azkoitiarrak irabazi zuela.

1886ko Euskal Jaietan bakarrik beste sari edo accesiten artean bi aipatuko nituzke: esan bezala ez baitira literatura alorrekoak, bata, Camilo de Villabaso bilbotar ospetsuak idatzitakoa, *Bosquejo acerca de la condición actual de los trabajadores Vascongados y de los medios más conducentes á mejorarla* eta, bestea, Aizpurua izeneko jaun batena *Cartilla del agricultor Bascongado para uso de nuestros labradores*. Durangokoan honelako lanak aurkeztu edo saritu baziren horrek esatea nahi du besteetan ere saio interesgarri asko agertuko zirela eta norbaitek arakatu beharko lituzkeela, euskaldun jendeak jakin dezan nolako fruituak eman zituen Anton Abadiaren Euskal Jaien ideia miresgarriak. Ohore berari!